

Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)

— — — — —

MANU LÓPEZ GASENI

Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea

Lanaren historia eta inbentarioaren osaera

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte EIZIEk 2008ko udan egindako enkarguari erantzunez, 1976-2008 bitarteko euskal itzulpenak bildu eta aztertzeari ekin diogu. Lan honen helburua, eginda dagoenetik abiatuz, datozen urteetarako itzulgai berriak zein izan daitezkeen erabakitze aldez aurreko urratsa izatea da. Lehenbizi, orain arte zer egin dugun jakin behar dugu, geroko jarduerak abiarazi baino lehen. Bigarrenik, orain arte egindakoa nolakoa den ere jakin behar dugu, alderdi kuantitatibo zein kualitatibotik aztertuta. Hirugarrenik, literatura unibertsala geureganatzeko zereginean egingai zer dagoen adierazi beharko litzateke.

Lan hau baldintza jakin batzuen pean egin da, eta horiek azaltzeari beharrezko deritzot, behar bezalako ikuspegia eskaintzeko.

Lehen baldintza lan hau aldi jakin batera mugatzea izan da, 1976tik 2008ra. Hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran hasi zen euskarazko liburuak sistematikotasunez eta maiztasun handiagoz argitaratzen, horra hasierako mugaren zergatia. Norbaitek pentsa dezake, arrazoiz pentsatu ere, egoera soziolinguistikoa eta euskararen beraren estandarizazioa asko aldatu dela ordutik hona, eta duela hogeita hamar urte argitaratutako itzulpenak merkatutik kanpo ez ezik, gaur eguneko hizkuntza-sentsibilitate askotatik urrun ere badaudela. Balio bezate horiek garai bateko ahaleginaren lekukotasun gisa.

Bigarren baldintza, ikuspegi orokor baterako garrantzitsuak izan litezkeen beste arlo batzuk, hala nola haur literatura edo alderantzizko itzulpengintza, oraingoz inbentario horretatik kanpo uztea izan da. Egia da haur eta gazte literaturak berezko azterketa bat merezi izango lukeela, ezaugarri oso bereziak dituela gogoan hartuta, eta beste hainbeste esan daiteke alderantzizko itzulpenaz.

Geroago azalduko ditugun eragozpenak eragozpen, euskaratutako literatura kanonikoa aztertzea eskatzen ari zitzaidalako ustean, “kanonikotasun” maila batetik kanpo kokatzen diren produktuak ere alde batera uztea erabaki dut, hala nola, euskara ikasteko erraztu eta/edo laburtutako testuak (Irakurmendi, Euskara Erraza...), egile askoren testuez osatutako antologiak eta egile jakinik gabeko ipuin bildumak (Munduko Ipuinak...). Inbentariotik kanpo gelditu dira, orobat, 1976 baino lehen egin eta gerora era desberdinetara (edizio kritiko gisa bereziki) berrargitaratutako itzulpenak.

Hirugarren baldintzak talkatxoa egiten du aurrekoarekin; izan ere, orain arteko egitasmo nagusiak jasotzeko ahaleginean, Pentsamenduaren Klasikoak eta Zientzia Irakurle Ororentzat bezalakoak ere kontuan hartzea eskatu zitzaigun. Gauza jakina da testu horietarik gehienak, kultura-munduko testu garrantzitsuak izanik, ez direla literatura-testuak, baizik eta Filosofia, Ekonomia, Matematika, Medikuntza eta beste arlo batzuetakoak.

Inbentarioaren osarari dagokionez, honakoak jasotzen dituen datu-base bat egin dut: egilea, titulua, itzultzailea, bilduma, argitaletxea, argitaratze-urtea, argitaratze-tokia, jatorrizko titulua, jatorrizko urtea, jatorrizko herria eta jatorrizko hizkuntza.

Batzuetan arlo horietakoren bat hutsik agertu behar zen (jatorrizko titulua, esaterako, antologiaren kasuan), eta beste batzuetan ezinezkoa izan zait daturen baten berri izatea. Edonola ere, horrelako datu-baseak denborarekin osatuz eta hobetuz doazen lan irekiak dira, eta balizko hutsek ez dituzte baliogabetzen, funtsean, azterketaren emaitzak.

Iturriak, berriz, askotarikoak izan dira. Nagusia, Joan Mari Torrealdaireren XX. mendeko euskal liburuen katalogoak izan dira, eta beste zenbait datu-baserekin osatu dira: ISBN delakoarekin, Euskal Herriko liburutegi batzuetako funtsekin (Koldo Mitxelena, Euskaltzaindia, Sancho El Sabio, Bizkaiko Diputazioko liburutegia) eta argitaletxeetako webguneetako informazioekin. Gainera, liburu gehienak fisikoki kontsultatu dira beste datu osagarri batzuk ateratzeko.

Lan-metodologia

Azterketa hau egiteko erabili dugun eredu metodologikoa Polisistemen Estudioen (“Polysystem Studies”) garapenetatik hartutakoa da. Zehazkiago, Itamar Even-Zohar irakaslearen “Polysystem Studies” (1990) lanean eta Gideon Toury irakasleak bazterreko sistemetako itzulpenak aztertzeke *In Search of a Theory of Translation* (1980) obran proposatutakoa.

Arestian aipatutako datu-basea oinarri hartuta, lehenbizi, xede- eta sorburu-sistemen deskribaketa egin beharko litzateke, sistema nolakoa den eta itzultitako literaturaren funtzio-al-

daketez ohartu ahal izateko. Horretarako, itzulitako corpusaren azterketa kuantitatiboa egitea proposatzen da, jakiteko zein izan diren sorburu-hizkuntza nagusiak, itzulitakoa eta jatorrizkoaren arteko oreka zehazteko, itzulpen lanik handiena egin duten argitaletxeak eta itzultzaile nagusiak zein izan diren...

Gero, sistemako itzulpen-arauak mailaka aztertzeari ekin behar zaio. Lehenik, aldez aurreko arauak (“preliminary norms”), hau da, itzulpena egin aurretik egiten diren hautuak: itzulitako lanak nola aukeratu diren, itzulpenak egiteko zubi-hizkuntzak erabiltzea zilegi izan den, itzultzaileen izenak liburuetan agertzen diren, eta abar. Hurrena, jarduerazko arauak (“operational norms”), edo itzulpena egin bitartean itzultzaileak hartzen dituen erabakiak: testuaren osotasuna errespetatzen ote den, testuaren paragrafo-banaketak jatorrizkoari jarraitzen dion, esaldi mailako erabakiak, leku eta toki izenekin nola jokatzeko den, eta abar.

Orain arteko guztia ikusirik, egokitasun / onargarritasun *continuum* horretan hasierako araua deritzana (“initial norm”) zein izan den ondorioztatuko da, hau da, zer aldetara lerratzen den itzulpenaren joera nagusia. Xede sistemako arau eta harremanetara moldatzeko joera erakusten badu, onargarritasunaz (“acceptability”) hitz egin behar dugu; joerak sorburu-sistemari begirakoak badira, berriz, egokitasunaren (“adequation”) aurrean egongo gara.

Horrekin guztiarekin, euskaratutako literaturaren ikuspegi orokorra lortuko dugu, geroko erabakiak oinarritzeko.

Euskal literaturaren sistemaren deskribapena

Diktaturako urteetako derrigorrezko loaldiaren ondoren, euskal liburugintza frankismoaren amaieran berpizten hasi zen. Itxaropena eta Lur argitaletxeek zabalduz bidean beste batzuk abiatu ziren: Hordago, Elkar, Erein... Euskara batu berriaren aldeko adostasuna gero eta zabalagoa zen, eta literatura berritzeko giroa indartsua zen *Panpina Ustela*, *Pott* eta *Oh! Euzkadi* aldizkariaren inguruan bildutakoaren artean, besteak beste. Trantsizio demokratiko deitutakoan, berriz, 1979an Euskadiko Autonomi Estatutua onartu zen, eta kultura-azpiegitura sendoagoak sortzen hasi ziren.

Esan daiteke garai hartan hasi zela euskal literatura benetako sistema gisa itxuratzen: produkzio literarioa euskaraz irakurtzeko gai zen irakurleriarekin batera haziz joan zen, merkatu-egituretarako oinarriak jarri ziren, kultura-eragile oso aktiboak sortzen hasi ziren...

Horregatik, urte esanguratsu bat hartzeagatik, 1976 urtea aukeratu da lan honen abiapuntu gisa, irizpide “hegozentrikoa” dela onartuta. Gainera, Torrealdairen esanetan, hogeita hamar urte hauetan, historia osoan zehar euskaraz plazaratu diren liburu guztien hiru laurdenak argitaratu dira.

Joan Mari Torrealdairen *30 urte liburugintzan* laneko datuei kasu eginez gero, 1976tik 2005era bitartean 31.524 titulu argitaratu dira. Horietatik, 5.065 literatura epigrafearen pean agertzen dira, hau da, ekoizpen osoaren %16.

Egile berari jarraituz, aipatu epe horretako literatura-titulu guztietatik, %20 izan ziren itzulpenak, hots, 1.013 titulu.

Guk berriz, 1976tik 2008 arte, 800 titulu inguru jaso ditugu, gorago adierazitako baldintzen barruan, eta titulu horietan oinarrituko gara segidan datozen datu kuantitatiboak eskaintzeko.

Jatorrizko hizkuntzei dagokienez, itzulitako titulu gehienek jatorrizko hizkuntza ingelesa izan da (%32); horien atzetik, frantsesa, gaztelania, alemana, italiara, latina eta errusiera datoz. Garbi gera bedi datu horiek liburuen jatorrizko hizkuntzari buruzkoak direla; datuok ez dira bat etorri behar, ezinbestean, itzultzaileek euskaratzeko erabilitako hizkuntzarekin.

Gauza jakina da ingelesezko literatura-sistema dela mundu osora titulu gehien kanporatzen dituen eta, aldi berean, kanpoko titulu gutxien onartzen duena. Hurrengo sorburu-sistema, frantsesa, ingelesetik hartzen den kopurutik oso urrun dago, erdia baino gehixeago. Gaztelania hirugarren tokian egotearen arrazoia hurbiltasuna da, gu gehienon bigarren hizkuntza izatea.

Ingelesa	%32
Frantsesa	%18
Gaztelania	%16,7
Alemana	%8,4
Italiara	%5,3
Latina	%3
Errusiera	%2,9
Besteak	%13,7

Itzulpenen jatorri diren herriei dagokioenez, berriz, lan gehienak Amerikako Estatu Batuetakoak izan dira (%13); horren atzetik datoz Frantzia, Ingalaterra, Euskal Herria, Alemania, Italia, Espainia, eta beste.

AEB	%13
Frantzia	%12
Ingalaterra	%11
Euskal Herria	%7,3
Alemania	%6,5
Italia	%6
Espainia	%5,6
Besteak	%38,6

Itzulgaiak zer garaitakoak diren ere aztertu dugu, eta, datuek erakusten duten legez, gehien-gehienak XX. mendekoak dira. Adibidez, XIX. mendekoak ia lau halako dira XX.ekoak, eta itzulitako literatura osoaren ia bi herenak.

XXI	%4
XX	%61
XIX	%16,5
XVIII	%4,5
XVII	%6
XVI	%1,6
XVetik atzera	%6,4

Generoari dagokionez, narratiba nagusitzen da erabat. Kalkuluetarako ez dugu eleberriaren eta ipuinen arteko bereiztasunik egin. Saiakeraren portzentajeak dexente igo dira Pentsamenduaren Klasikoak bildumari esker, eta poesia eta antzerki itzuliaren kopuruak oso txikiak dira.

Narratiba	%68
Saiakera	%17
Poesia	%8
Antzerkia	%7

Itzulpenak argitaratu diren datari ere erreparatu diogu. Itzulpen gehienak 1990eko hamarkadan argitaratu ziren. Gogoan izan behar da urte horien inguruan sortu zirela itzulpen-ikasketak, EIZIE (1987), Literatura Unibertsala (1990), Pentsamenduaren Klasikoak (1992) eta itzulpenaren lagungarri izan ziren beste ekimen batzuk.

1976-1980	%2,6
1981-1990	%22,3
1991-2000	%42,1
2000-2008	%33

Itzulitako egileei buruzko datuak, espero zitekeen legez, oso zatikaturik agertzen dira. Lehenengo biak literatura unibertsaleko kanon guztietan agertzen dira, nahiz beharbada ez ordena berean: Cervantes eta Shakespeare. Hirugarrena, berriz, etxeko bat da, Pío Baroja. Agatha Christie arrakastatsua ere itzulien zerrendan dago, Wilde eta Maupassant ipuingileekin batera.

Miguel de Cervantes	%3
William Shakespeare	%1,5

Pío Baroja	%1,3
Oscar Wilde	%1
Agatha Christie	%0,9
Guy de Maupassant	%0,9

Gehien euskaratu duten itzultzaileekin egile itzulienekin bezala gertatzen da: bakoitzari dagokion portzentajea oso apala da. Tartean itzultzaile asko izanik, produkzioa hain banatuta dago, gehien itzuli duenak %4ko kuota besterik ez baitu.

Xabier Mendiguren Bereziartu	%4
Xabier Olarra	%3
Lukax Dorronsoro	%2,9
Koro Navarro	%2,1
Xabier Galarreta	%2
Koldo Biguri	%1,5
Juan Garzia	%1,5
Fernando Rey	%1,5

Argitaletxeka banatuta, honela geratzen dira datuak: lehen tokian, 100 titulu ingururekin, Pentsamenduaren Klasikoak argitaratzeko sortu zen Klasikoak argitaletxea dago; bigarren, Ibaizabal, “Literatura Unibertsala” delakoa lehen aroan argitaratu baitzuen.

Klasikoak	%13,4
Ibaizabal	%12,7
Igela	%8,7
Elkar	%8,7
Erein	%6
Hiria	%5,3
Elkar/Alberdania (Lit. Unib.)	%5
Alberdania	%4,5

Euskal literatura-sisteman nagusi diren itzulpen-arauak

Aztergai izan dugun 1976-2008 aldi horretan izan diren itzulpen-arauak identifikatuko dira hurrena.

Lehenbizi, metodologiaren atalean esana geratu den legez, “aldez aurreko arauak” zehaztuko ditugu.

Itzulgaien aukeraketari dagokionez, joera bat baino gehiago agertzen dira. Alde batetik, erakunde publikoek bultzatutako bildumak ditugu: Literatura Unibertsala, Pentsamenduaren Klasikoak, Antzerti (Eusko Jaurlaritza eta beste); Gaur Egungo Euskal Poesia, Limes, ZIO (EHU). Horrelakoen asmoa arlo jakin bateko obra kanonikoen errepertorioa osatzea da (literatura, filosofia, antzerkia...). Izan ere, sistema batek aukeratzin dituen itzulgaiak zein diren aztertzea garrantzitsua da sistema horrek ustez dituen beharrak antzemateari begira. Even-Zohar-en hitzetan:

It is clear that the very principles of selecting the works to be translated are determined by the situation governing the (home) polysystem: the texts are chosen according to their compatibility with the new approaches and the supposedly innovatory role they may assume within the target literature. (Even-Zohar, 1990, 47)

Argitaletxe pribatuak, berriz, ustez salgarriak edo komertzialak diren obra mota asko argitaratu dute: polizia-eleberria edo eleberrri beltza, gaur eguneko narratzaileen obrak, egile kanoniko askoren obra labur irakurgarriak, eta, neurri txikiagoan, antzerkia eta poesia.

Azkenik, klasiko banaka batzuk ere argitaratu dira ekimen pribatuaren eskutik, hala nola Cervantesen obra gehienak, eta Grezia eta Erromako egile batzuk itzultzailearen kargurako edizioetan.

Argitaletxe pribatuaren joera nagusia eskubideak libre zituzten obrak argitaratzekoa izan da; azken urteotan, ordea, gero eta gehiago dira dagozkien argitaratze-eskubideak erosita plazaratzen diren itzulpenak.

Itzulpenak jatorrizko hizkuntzetatik edo zubi-hizkuntzaren bat erabilia egin diren auziari buruz, badirudi jatorrizko testuetara jotzeko beharrari dagokionean euskal literatura-sistema zorrotzagoa dela helduen literaturan bestelako arloetan baino (haur literatura, gizarte-zientziak, irakaskuntza...). Bestela esanda, aztertutako corpusean nahiko garbia da testuan testuko hizkuntza zekiten itzultzaileekin lan egiteko joera.

Arau horren adierazle, nahiz eta munduko hizkuntza gero eta gehiagotik euskaratzeko gaitasuna lortuz joan den, gaztelaniatik eta frantsesetik euskaratutako testu-kopuru handia dugu.

Zubi-hizkuntza erabiltzea, berriz, zilegitzat jo izan da gure ikuspuntutik urrunak, oso kopilatuak edo exotikoak diren hizkuntzen kasuan, nahiz eta parametro horiek antzemateko modua aldatzen ari den.

Hala ere, **jatorrizko izenburuak kreditu-orrian agertzea** ez dago uste bezain zabalduta; gero eta itzulpen gehiagotan agertzen den arren, aztertutako obren %48an ez dago adierazita (kontuan hartu behar da horietako batzuk testu-antologiak, bildumak eta obra osoen zatiak direla). Jatorrizko testuen lehen argitaratze-urtea, berriz, oso kasu bakanetan eskaintzen da.

Itzultzaileen izenak liburuaren azaletan agertzeari dagokionez, beste hainbeste esan daiteke: Literatura Unibertsala eta Pentsamenduaren Klasikoak bildumetatik kanpo, bakarrik ikus daiteke Igela, Elkar eta Txalaparta argitaletxeetako azken urteotako tituluetan, eta Erein argitaletxeke Bartleby bilduman (1991-1993).

Datuok interpretatzean zalantzak ditugu: alde batetik, literatura-sistema sendoei begiratu gero, normaltasun-zantzutzat hartu beharko litzateke itzultzaileen izenak portadetan ez agertzea; bestetik, ordea, itzultzaile-elkarteek beren profesionalen ikusgaitasunaren alde egindako lanaren ondorioz, argitaletxeek gero eta sarriago aitortzen dute itzultzailearen izena liburuen azaletan, lanbidearen eta literatura-itzulpenen estatua jasoz, eta idazlan horiek literatura-sisteman betetzen duten posizioa hobetuz.

Jarduerazko arauak zein izan diren ondorioztatzeko, itzulpen bakoitza jatorrizkoarekin konparatuko lukeen azterketa traduktologikoa egin beharko litzateke. Lan eskerga hori, ordea, txosten honen helburuetatik kanpo geratu da, begibistako arrazoiengatik.

Hala era guztiz ere, joera batzuk adierazi daitezke. Esaterako, **testuen osotasuna** itzulpen gehien-gehienetan errespetatzen den araua da. Esaterako, arau hori askoz malguagoa da haur eta gazte-literaturan, non testu moldatuak, laburtuak eta expurgatuak oso ugariak diren. Hala ere, sarreran esan dugun legez, ez ditugu kontuan hartu euskara ikasteko erabilitako literatura-itzulpen erraztu eta laburtuak.

Beste hainbeste esan daiteke **toponimo eta antroponimoen trataeraz**: oro har, tokian tokiko pertsona- eta toki-izenak errespetatzeko araua da nagusi, beste tradizio eta garaietan ez bezala.

Orain arteko datu guztiek erakusten dute “hasierako araua” delakoa nahiko orekatuta dagoela egokitasunaren eta onargarritasunaren artean, eta joeraren bat adieraztekoan egokitasunaren alderantz lerratzen dela esango genuke, hau da, jatorrizko obren eta literatura-sistemen arauetara gordetzearen alderantz. Hala erakusten dute, itzulpen-estrategia nagusiek ez ezik, zenbait idazle garrantzitsuk itzulpen horiekin aitortutako zorrak ere. Izan ere, euskal literaturarena bezalako sistema ahul batean, jatorrizko sorkuntzan erabilgarriak izan daitezkeen errepertorio eta eredu berriak eskaintzen dituzte itzulpenek. Horri transferentzia deitzen dio Even-Zohar-ek, eta honela azaltzen du bere lan nagusian:

Through the foreign works, features (both principles and elements) are introduced into the home literature which did not exist there before. These include possibly not only new models of reality to replace the old and established ones that are no longer effective, but a whole range of other features as well, such as a new (poetic) language, or compositional patterns and techniques. (ibidem, 47)

Literatura-hizkera garatzeko zeregin horrekin lotuta, gainera, titulu gehien euskaratutako itzultzaileen artean agertu ez arren, corpusean badira itzultzaile lanean aritutako hainbat idazle ere: Koldo Izagirre, Mikel Lasa, Joxe Austin Arrieta, Pello Lizarralde, Jon Alonso, eta abar.

Guztiarekin ere, itzulpen-corpus osoaren barruan estratifikazioa dago, hau da, testu guztiak ez dira maila berekoak. Lehen bereizketa nagusia testu kanonikoen eta ez kanonikoen artekoa da, eta ez kanonikoen artean ere hainbat maila daude. Hortaz, itzulpen guztiek ez dute funtzio bera betetzen.

Ondorioz, itzulitako testuek euskal literatura-sisteman betetzen duen posizioa tartekoa dela esan daiteke: ez da guztiz zentrala (literatura sortu berrietan gertatzen den legez), ezta guztiz

periferikoa ere (guztiz ezarritako literatura nagusien kasuan legez). Itzulitako testu batzuek erreperitorio kanonikoak osatzen laguntzen duten bitartean, beste batzuek zenbait erreperitorio periferikoen gabeziak betetzera datoz (polizia-eleberria, adibidez).

Itzulpen-corpusari buruzko gogoetak

Lehen-lehenik, **literatura-itzulpenek duten harrera** hartu nahi genuke hizpide. Begibistakoa da, oro har, euskal irakurleek askoz gutxiago jotzen dutela itzulpenetara jatorrizko lanetara baino. Horren arrazoietako bat, gure ustez, itzulpen askok betetzen duten eredu eta erreperitorio berriak gureganatzeko arestian aipatu zereginen bilatu behar da. Irakurle askori gaitza egiten zaizkie hizkuntzaren mugetaraino literarioki bortxatze hori, izen eta egoera arrotzak, testu askoren luzea, literatura-planteamendu berri korapilatsuak.

Ez dirudi, ordea, horrelako arazo nabarmenik dagoenik haur- eta gazte-literaturako itzulpenekin. Arlo horretan ere, joera berriak ekarri ohi dira itzulpenen bidez, eta azken urteotan euskaratutako testu asko inoiz ikusi gabeko luzerakoak ziren (Harry Potter-en saileko itzulpenak, adibidez; kasu askotan, bidenabar, helduen irakurgai izan baitira).

Joan Mari Torrealdairen *30 urte liburugintzan* aipatu lanean, berrargitalpenez ari dela, ez da itzulpenik agertzen euskal literaturako hamar liburu berrargitaratuenean artean; haur eta gazte literaturako datuen artean, ordea, jatorrizko berrargitaratuenean edizio-kopuru bera duten itzulpenak agertzen dira.

Euskal irakurleei nekeza egiten zaie itzulpenak irakurtzea. Aitzitik, inoiz adierazi den legez, ez dute antzeko arazorik itzulpenak gaztelaniaz (Hegoaldekoen kasuan) edo frantsesez (Iparraldekoen) irakurtzen dituztenean. Arazoa, nonbait, hizkuntza bakoitzaren konplexutasunei aurre egiteko duten tolerantzia-mailan dago.

Irakurleak irabazteko, atzerapauso nabarmena izango litzateke, gure ustez, itzulpen-estrategiak aldatu eta onarpenaren muturrera eramatea; irakurleak irabazteko erronkari, aldiz, itzulgai erakargarriak aukeratzearen bidez egin behar zaio aurre, ekimen pribatuko zenbait argitaldarik frogatu duten legez (Igela, Alberdania...).

Gaiz beste eginez, hautatutako **itzulpen-corpus osoa bizirik dagoen** aztertu nahi genuke hurrena. Liburuaren bizialdia gero eta laburragoa den honetan, zaila izaten da zortzi-hamar urte baino gehiago dituzten tituluak liburu-dendetan topatzea, salbuespenak salbu. Liburu batzuk eskabidez jaso daitezke banatzaileengandik, baina hamabost bat urte baino gehiagoko beste titulu asko katalogoetatik kanpo geratu dira. Bestela esanda, liburutegietan aurki daitezkeen arren, liburu horiek ez daude bizirik.

Beste alde batetik, Euskaltzaindiak 1992-1995 bitartean hartu zituen araugintza berriko erabaki gehienak, eta geroztik irakurle askori gero eta gehiago kostatzen zaie aurreko idaztan-keran idatzi edo itzulitako obrak gogo onez irakurtzea. Joera hori areagotu egiten da corpuseko lehen urteetako obraren kasuan.

Arrazoi horiek guztiak direla medio, itzulpen asko berridatzi edo/eta berrargitaratu beharko liriteke, irakurle berrien esku-begietara iristea nahi badugu (kasu batzuetan, arrazoi desberdinak tarteko ez baita ezinbestekoa).

Ekimen publikoak itzulpenetan izandako eragina oso nabarmena izan da. Datuek adierazitakoaren arabera, aztertutako urtealdian euskaratutako guztiaren herena egin da babes publikoaren pean, Pentsamenduaren Klasikoak, Literatura Unibertsala, Antzerti, Gaur Egungo Euskal Poesia, ZIO eta Limes bezalako bildumen bitartez.

Horien artean, Antzerti da bildumarik zaharrena (1983-1985). Haren bidez, jarraipena ematen zitzaion gerra aurreko izen bereko argitalpenari, eta antzerki-eskolako ikasleek antzetzeko moduko lanak argitaratzen zituen. Gure datu-basean jasotako dozenaz gain, euskaraz sorturiko beste antzerki-lan batzuk ere baziren. Titulu, testu eta faksimil guztiak helbide honetan aurki daitezke: <http://antzerti.armiarma.com/>

Gaur Egungo Euskal Poesia bilduma EHUren ekimena izan zen, egungo euskal poeta (euskaraz zein gaztelaniaz idazten dutenak) batzuen obra ele bitan argitaratzeko. Gaztelaniaz idazten duten zortzi poeten obrak argitaratu ziren, beste hainbat euskal poetaren itzulpena lagun, 1990etik aurrera.

ZIO eta Limes bildumak ere EHUren babes pean argitaratzen ari dira. Lehenak zientzia-dibulgazioko testuak biltzen ditu 2003tik, eta, bigarrenak, pentsamenduaren historiako hainbat testu politiko-filosofiko eskaintzen ditu 2004az geroztik.

Pentsamenduaren Klasikoak bilduma 1992 urtean argitaratzen hasi zen, babesle batzuen laguntzari esker: BBVA Fundazioa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Vital Kutxa, Kutxa, BBK eta Deustuko Unibertsitatea. Urte hauetan guztietan ehun bat titulu argitaratu ditu, garai guztietako pentsamenduaren obra nagusiak sen handiz bilduz. Obra horietako gehienak nekez argitaratuko ziren erakunde publiko eta pribatuaren laguntzarik gabe. Testu guztiok interneten daude eskuragai, <http://www.klasikoak.com/> helbidean.

Literatura Unibertsala, azkenik, titulu gehien biltzen dituen bilduma da: ehun eta berrogei inguru, orain arte. Finantziarioa Eusko Jaurlaritzatik dator, eta EIZIEk kudeatzen du. Lehen titulua 1990ean argitaratu zenetik, Literatura Unibertsala euskaraz eskaintzea izan zuen helburu, irizpide batzuen arabera: hautaketan idazlan irakurgarriak eta ez luzeegiak egotea, batez ere XX. mendeko idazlanak eskaintzea, ekimen pribatuarekin konkurrentzian ez sartzea. Hala, argitaratutako lanen %68 XX. mendekoak dira, %25 XIX. mendekoak, eta %7 lehenagokoak.

Bestalde, behin baino gehiagotan eztabaidatu da gaztelaniazko obrak euskaratu behar ote ziren, eta orain arte hizkuntza horretatik euskaratuak %8,6 izan da (12 idazlan).

Guztiarekin ere, bilduma horretan eleberria eta narrazioa dira nagusi: 8 antzerki-lan eta poesia-liburu bakar bat besterik ez daude. Datu harrigarri horiek itzulgaien aukeraketan oreka handiagoa ezartzea eskatzen dutela dirudi.

Ekimen pribatuaren eskutik sortutako bildumei dagokienez, detektibe-literatura eta literatura beltza izan dira azpigerorik argitaratuena. Igela argitaletxeak Enigma bilduman argitaratu ditu A. Christie eta A.C. Doyle-ren lan batzuk, besteak beste; eta Sail Beltzean, berriz,

genero beltzeko obra klasiko ugari (Chandler, Thompson, Hammett, Cain, eta abar). Elkar argitaletxeak ere izan zuen adar “beltza” 1980ko urteetan argitaratutako Erdal Literatura bilduman. Beste bilduma batzuetan ere aurki daitezke azpigenero horietako obra gehiago (gogoratu A. Christie izan dela gehien itzulitako bosgarren egilea).

Beste alde batetik, argitaletxe gehienetan dago neurriren batean atzerriko egile kanonikoen zein gaur eguneko idazle ospetsuen testuak biltzen dituen bildumaren bat: Elkar argitaletxea Erdal Literatura plazaratzen hasi zen 1980ko hamarkadan, eta geroago Literatura izeneko beste bat; esaterako, azken urteotako Nobel saridunen obra bana argitaratzen dute. Igela argitaletxeak ere Literatura izeneko bilduma bat du, XX. mendeko idazle ospetsuen obrak bilduz. Txalapartak beste hainbeste egiten du Amaiur bildumaren bidez. Alberdaniak, bere aldetik, Narrazioa izeneko bilduman egiten du lan hori. Erein argitaletxeak, berriz, itzulpen gutxiago biltzen ditu bere Literatura bilduman, eta batez ere jatorrizko testuez elikatzen da.

1990eko hamarkadan, bestalde, bi ahalegin interesgarri egin ziren itzulitako literatura testu labur eta irakurgarrien bidez irakurleei helarazteko: Bartleby bilduma, Alberdania argitaletxearena, 1991tik 1993 arte argitaratua, 12 itzulpenekin; eta Milabidai bilduma, Ereinen eskutik 1994tik 1996ra plazaratua, 15 itzulpenekin.

Helduen literaturaren eta gazte literaturaren arteko interferentziak ere aipatu nahi ginituzke. Idazlanak euskaratzen direnean, bi norabideetan gertatzen diren gurutzaketek ari gara: batzuetan jatorrizko sisteman gazte literaturakoa den obraren bat helduen sistemara pasatzen da gurean; eta, sarriago gertatzen dena, jatorrizkoan helduentzat den idazlanen bat gazte-literaturako bildumaren batean kokatzen da euskal sisteman. Zalantza horiek gertatzea normalizat hartu beharko genuke, sorburu-sistema eta helburu-sistema oso gutxitan izaten direlako simetrikoak.

Atal hau ixteko, gogoeta bat egin nahi genuke arlo honetako bi bilduma nagusiei ezarritako **“unibertsal” eta “klasiko” deituren inguruan**.

Literatura Unibertsalaren kasuan, EIZIE elkartearen webgunean adierazten den legez, “auzo-hizkuntzetan sortu eta euskarara itzulitako literatura-lan ederrenez osaturiko liburu-bilduma da”, eta horri gaineratzen zaio “munduko kulturaren ekoizpenik garrantzitsuenetako batzuen ondarea euskararen bidez ere jasotzeko aukera” eskaintzen duela bildumak.

Pentsamenduaren Klasikoak bildumaren aurkezpen testuetan, berriz, honela definitzen da jomuga dituzten testuak: “mendebaldeko kultura honen oinarriak dauden pentsamendu unibertsaleko obra gailenak”, eta “garai guztietako pentsamendu-obra nagusien bilduma” gisa.

Hortaz, garbi dago “unibertsal” terminoak, mundu zabaleko adiera ez ezik, “klasiko” edo “kanoniko” ere adierazi nahi dituela. “Klasiko” hitzak, berriz, erreferentzia egiten die literatura-garai edo mugimendu bakoitzean gorenak eta ereduak diren idazlan edo egileei. Beste termino bat tartean sartuz, badirudi bietan “kanonikotasuna” bilatzen dela, hau da, ereduak idazlanen izaera.

Honela definitzen da “kanon” hitza Euskaltzaindiaren *Literatura terminoen hiztegia* delakoan: “Literaturari dagokionez, *kanon* hitzak literaturaren arlo bateko nahiz literatura uniber-

tsaleko egile garrantzitsuenen lanen zerrenda adierazten du (...) Aipatzekoa da, bestalde, H. Bloom kritikariak mendebaldeko kanonari buruz idatzi duen liburua (*The Western Canon. The Books and School of the Ages*, 1994), non W. Shakespeare agertzen baita nagusi, Dante orpoz orpo doakiolarik. Bi egile horien zutabeen gainean eraiki omen da mendebaldeko kanona, eta ondoren zerrenda luze bat eskaintzen du, mendebaldeko idazlerik garrantzitsuenen izenez osatua. Hogeigarren mendeko literaturari dagokionez, zerrendako egileak hautatzerakoan ziurtasun falta aitortzen du kritikariak berak” (437. or.).

Laburbilduz, badirudi bilduma bietan jaso nahi den espiritua mundu zabaleko idazlan garrantzitsuenak biltzea dela.

Baina, Bloom-ek berak aipaturiko obran dioen legez, “Who reads must choose, since there is literally not enough time to read everything, even if one does nothing but read” (15. or.). Baieztape hori bereziki esanguratsua da datozen belaunaldien irakurgaiak hautatu eta euskaratzeko ardura dutenentzat.

Gerora begira: itzulgaien proposamenak eta beste

Orain arte egindakoa aztertzea ez ezik, gerora begirako itzulgaien proposamenak egitea ere eskatu zaigunez gero, testu kanonikoen proposamen horietarako iturriak zein izan daitezkeen azalduko dugu.

Lehenbizi, tokian tokiko literaturen historiak zein literatura unibertsalaren historia aintzat hartu beharko genituzke, horiek baitira, definizioz, kanonak osatzen dituzten eragileak.

Harold Bloom-en *The Western Canon* aipaturako obra ere erreferentzia bat izan daiteke, mendebaldeko kulturari begira bederen.

Sari batzuek ere, Nobel saria kasurako, kanonikotasun-zantzuak eskaintzen dituzte.

Azkenik, gero eta ohikoagoak diren hango eta hemengo “100 liburu onenen zerrendak” ere gure proposamen iturri izan litezke.

Horren guztiaren ondorioz aterako den zerrenda euskal kulturak beharko litzukeen idazlan kanonikoen gutxieneko zerrenda izango litzateke, irizpide komertzialak alde batera utzita.

Azken ohar pare bat:

- 1) Lehentasunik adierazi behar izanez gero, honako hauek proposatzen ditugu: a) poesia-eta antzerki-lanak bultzatzeko ahalegin berezia egitea; b) XX. mendeko obra asko dagoenez gero, arlo batzuetan (poesia, ipuinak, pentsamendua) antologiak egin daitezke; c) gaztelaniazkoak ez diren idazlanen itzulpenei lehentasuna ematea (gaztelaniazkoen itzulpenak estilo-ariketa gisa ulertu beharko lirateke).
- 2) Zerrenda horretako hizkuntza garrantzitsuren batetik euskaratzeko arazorik balego, itzultzaileak formatzeko laguntza-sistemaren bat bilatu beharko litzateke.

Ondorioztatu dugun proposamena eranskinetan paratu dugu. Osotasunaren ikuspegia izateko, urtealdi bakoitzeko zerrendaren ondoan, euskaratuta dauden tituluen zerrenda eskaini

dugu, hizkuntzaka, euskaratu ziren urtearekin batera. Obren izenburuak gaztelaniaz ematea erabaki dugu.

Gerora begira egin nahi genukeen azken oharra lan honen beraren elikatzeari buruzkoa da. Hasieran adierazi dugun legez, osatu dugun datu-basea bizirik dago, eta urtez urte eguneratuz joan beharko litzateke, urte batzuk barru egoera nola eta zertan aldatu den jakin ahal izateko.

Azkenik, eta aurrekoarekin lotuta, datu-basea nahi duen orok kontsultatzeko moduan jarri beharko litzateke, sarean-edo. Baterako zein besterako bideak zabaltzea oso mesedegarria izango litzatekeelakoan gaude.

BIBLIOGRAFIA

- Askoren artean (2008). *Literatura terminoen hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Bilbao, Jon (1970-1981). *Eusko Bibliographia. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Cuerpo C*. Donostia: Auñamendi (10 liburuki).
- Bilbao, Jon (1985-1996). *Eusko-bibliographia*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea (4 liburuki).
- Bloom, Harold (1994). *The Western Canon*. Londres: Macmillan.
- Boxal, Peter; Mainer, Jose-Carlos (2006). *1001 libros que hay que leer antes de morir*. Bartzelona: Grijalbo.
- Even-Zohar, Itamar (1990). "Polysystem Studies", in *Poetics Today*, 11, 1.
- Torrealdai, Joan Mari (1993-2001). *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (5 liburuki).
- Torrealdai, Joan Mari (1997). *Euskal kultura gaur*. Donostia: Jakin.
- Torrealdai, Joan Mari (2007). *30 urte liburugintzan*. Donostia: Jakin.
- Toury, Gideon (1980). *In Search of a Theory of Translation*. The Porter Institute of Poetics and Semiotics. Tel Aviv: Tel Aviv University.